

EGUNEROKO EKAITZA

Egun berri guztietan
eguneroko leloa.
Gauetako ametsetan
eguneroko ametsetako
egun handia gogoan.
Egunerokotasuna aldatzeko
gogor zainak odolustutzeraino,
gehiago eman ahal ez izateraino.
Ametsa maitatzen bada
ametsa egia dagigun.

Jakin ahal ez izateak
sortzen du
ezinegona,
baina jakiteak
sortzen du poz adina
pena.

Jakitetik, ordea,
dugu bizia ikasgai,
nortasuna aldagai.
Izenpeko izateak
ezin du galdu osoki izana
bihur ez dadin
gaueko itzal galdua.

Bizitza sortuz bizi,
 izanaz izanez hazi.
 Askatasunezko hegaldi,
 amets hori geldialdi.
 Izena da aldagarri,
 izana da fidagarri.

Nor naizen ez dakit
 izena baitakit.
 Baina nire izateak,
 naizenean finkatuak,
 badaki zer egin
 eta zergatik.
 Garena izatea
 debekatuta.
 Nahi dutena izatera,
 behartuta.
 Sarrailapean gara
 aske,
 zergatik ez gara
 bakezale?

Gure hitz eroak,
 itxaropenezko oihuak,
 giltza nahiak,
 zoratuak.
 Begien aurrean dugun,
 ikusten ez dugun,
 ametssetako giltza bera
 eskuratzea da gure lema.
 Sarraila ireki,
 ametsak egia
 egin.

Hondartzetako hondarra,
galernak altxatutakoa,
haizeak darama
itsasoan itotzera.
Baina haizeak berak
sortzen dituen olatuek
itzultzen dute hondarra
dagokien lekura.
Oraina badoakigu,
iragana joan zaigu,
olatuak etorkizuna dakarkigu.

Hondartzetako hondarretan,
gure urratsak ezabatu
eta bereak idazten ditu
haizeak.
Baina azken hitza,
olatuak emana
izanen da,
itsasoaren barneak esana.

Egun ekaiztsuetan
haizea da indartzen,
enbata da zakartzen.
Olatuek ere egun horietan
dute erantzuten
eta ahalik eta eremu gutxien
galtzen
ahalegintzen.

Etxabun Aurkenerena
(Urruña)